

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

#### 338/2022 prozedura laburtuan epatzeko iragarkia

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, errekurtsua jarri eta espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegira bidali dela jakinarazten da; 338/2022 prozedura laburtua, Teresa Jesús Tobar de Mena andreak eskatuta bideratua, irailaren 28ko 131/2022 Foru Aginduaren aurka, zeinaren bidez ezesten baita GOFeko Psikologoaren 2021eko EPEaren hautaketa-prozesuko bigarren ariketaren behin betiko emaitzen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua.

ALHAOn dagokion iragarkia argitaratuz, interesa duten guztiak epatzen dira, eta bederatzi eguneko epea izango dute autoetan agertu eta pertsonatzeko, iragarki hori argitaratu eta bi-haramunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 17a

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea*  
**JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS**